

ZORIONTSU ZAITEZELA!

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Anbotopeko Axpen jaioa
mutil mardul euskalduna,
Jaunaren deia entzun orduko
emon eutson erantzuna.
Maisuaren atzetik
Pasiotar bidetik
bete dau eginkizuna;
larogeita bost urte luzetan
etengabeko jarduna.

2

Anboton hasi eta noraino
Andresen joan-etorriak,
bere barrua ezin dau ase
Polpoleko iturriak.
Hemen ta Amerikan
eten barik korrikan,
ezin ase egarriak.
Mari Anboto txiki izten dau
Andres misiolariak.

3

Peru aldean ta Puerto Ricon
Pasiotar menzulari,
ametsak amets, baina bete
nahi,
izerdi, neke ugari.
Gizonagaz gizon,
Jaunari kirieleison...
Jarrai Nazaretarrari.
Pobreak zaindu, beste
guztiak
bost ardura eutson hari.

4

Ebangelio hazi ederra
erein dau ekin ahalean,
azken urteak emonak ditu
Galdakao hospitalean.
Gaixoen zerbitzura
erruki ta ardura,
bere modu apalean;
holan agertuz zer Jainko
eukan
bere bihotz zabalean.

5

Kezkaz urduri, bila ta bila,
azkenean ere topo,
holako bati ez deutso Jaunak
sekula egingo poto.
Azkenerarte ekin,
horri, hari on egin!
Zenbat etxe, bide, zoko...
Gaur zorionak eta txapela
igon dozu-ta "Anboto".

6

Hainbeste gorabehera
izanda,
heldu da kaira batela,
hau arrantzua egin dozuna,
ez zara izan txepela.
Hor arpegiz arpegi
Jainkoa begiz begi,
hau ikusita, bestela...
Ametsak egi bihurtu jatzuz,
zoriontsu zaitezela!

A. Martzel

